

Zer da?

Zertarako da?

Jarduera ez sailkatuak dira beren izaera, funtzionaltasuna eta ezaugarri teknikoak direla eta, ingurumenarentzat, pertsonentzat edo ondasunentzat eragin kaltegarriarik sorrarazten ez duten jarduera eta instalazioak.

Zeintzuk dira sailkatu gabeko jarduerak?

Sailkatu gabeko jarduerak ondoko betebeharrak hauek guztiak bete behar dituzte:

- 1.- Behe-solairuko lokaletan edo eraikin salbuetsitan kokatuko dira, baina betiere indarrean dagoen hirigintza-planeamenduaren arabera horrelako jardueretarako destinatuta egon behar dute.
- 2.- Establezimenduaren azalera osoa ez da 100 m² erabilgarritik gorakoa izango.
- 3.- Ezin dira izan ikuskizun publiko edo aisialdiko jardueren araudi bereziak araututako jarduerak ez eta Hernaniko Udal Ordenantzen I. Liburuaren "Ostalaritzako eta aisialdiko jarduerak ezartzea arautzen duen Ordenantza" izeneko IV. Tituluak araututakoak ere.
- 4.- Ez dute izango musika-aparaturik, ez sukaldaritzakorik eta ezta keak kanporatzekorik ere, eta bertan ez dituzte elikagaiak edo produktu galkorrak manipulatu edo animaliak edukiko, tratatu eta abar.
- 5.- Jardueraren ordutegia **8:00 - 22:00** artekoa izan behar du.
- 6.- Aire girotuaren sistemak 70 kw-tik beherako potentzia izango du.
- 7.- Jardueraren ondorioz ez dira hondakin arriskutsurik sortuko.
- 8.- Establezimenduan ez dira biltegitratuko 500 kg produktu sukoi baino gehiago.
Aurreko puntu horietan adierazitako betebeharrak bat edo gehiago betetzen ez duten jarduerak II. MOTAKO JARDUERA SAILKATU gisa hartuko dira.

Nola lortzen da udal baimena?

Jarduera ez sailkatuak egiteko udal baimena lortzeko inprimaki hau aurkeztu behar da udalean: [Aurre Ezagutzearen Jakinarazpena – Jarduera ez sailkatua](#). Inprimaki horretan egin nahi den jardueraren nondik norakoak azalduko dira. Inprimakiarekin batera hurrengo atalean adierazten den dokumentazioa ere aurkeztu behar da.

Udalak Jardueraren Aurre Ezagutzearen tramiterako eskatzen den **dokumentazio guztia onartu ondoren, hurrengo egunetik aurrera has daiteke jarduerarekin** (dagokion udal tasa ordainduta egon behar du).

Aurre Ezagutzearen jakinarazpenerako inprimakia **onartuko da bakarrik dokumentazio GUZTIA osorik dagoela egiaztatzen denean.**

[Dokumentazio gehigarria inprimakia](#)

Hurrengo hamar (10) egun baldiodunen barruan, Udalak interesdunari jakinarazi ahal izango dio jarduera ez datorrela bat aplikagarri duen araudiarekin edo beste esku-hartze erregimenen bat jarraitu behar duela, eta jarduerarekin ez jarraitzeko eskatu ahal izango dio.

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Jarduera ez sailkatua egiteko aurre ezagutzearen inprimakia.](#)
- Jardueraren eta lokalaren ezaugarriak -ingurumen-eraginak gutxitzeko hartzen diren neurriak barne-deskribatuko dituen azalpen eta justifikazio memoria.
- Planoak:
 - Planoa edo kokapenaren krokisa.
 - Lokalaren oinplanoa(k), eskala egokian eginak (1/100 baino txikiagoa ez), gela desberdinen banaketa, altzariak, erabilerak eta azalera erabilgarriak jasoko dituenak.
 - Lokalaren sekzio-planoa(k), eskala egokian eginak (1/100 baino txikiagoa ez), geletako altuera libreak mugatuta dituztenak.
 - Suteen aurkako babes-neurrien oinplanoa(k), horien kokapena eta ezaugarriak ere adieraziz.
 - Zerbitzu sareekiko loturen planoak (ura, saneamendua, argindarra...)
- Lokalaren fatxaden argazkiak (13x18 cm²-ko tamaina).
- Obra lizentzian jarduera burutzeko baldintza gisa eskatutako edozein agiri.
- Tasa eta zergen likidazioaren frogagiria.
- Ziurtagiri teknikoak (1. eranskina)
- Erantzukizunpeko adierazpena (2. eranskina)
- Hondakinen kudeaketa zerbitzuak eginiko ziurtagiria.



Nola eskatzen da?

Aurrez aurre: hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00.**

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

① **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** udalaren www.hernani.eus web orriko egoitza elektronikoan

✉ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Merkataritza lokalak eta zerbitzuetakoak **387,05 € Tasa**

Oharra:

Euskara Sailak dirulaguntza ematen du establezimenduko errotulazio guztia euskaraz jartzen bada:

Tramitzeko ardura duen udal saila

Hirigintza eta Ingurumen saila

Informazio gehiago: **943 337000** edo hhz@hernani.eus

Araudi aplikagarria

- *X. Titulua: Hernaniko Udalaren hirigintza-lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen ordenantza (2014ko azaroak 28ko GAO, 248 zk.)*
- *IV. Titulua: Ostalaritzako eta aisialdiko jarduerak nola ezarri behar diren arautzen duen ordenantza.*
- *7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Directiva egokitze aldera zenbait lege aldatzekoaren II eta VIII. Kapituluak*
- *12/2012 Legea, abenduaren 26koa, Merkataritza eta zerbitzu jakin batzuk liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa.*
- *Irisgarritasuna: 68/2000 Dekretua (2000ko ekainaren 12ko EHAA, 110. zk.)*
- *Suteen prebentzioa: CTE-DB-SI*
- *Hernaniko Udaleko Ordenantza fiskala*

